

Emakumeentzat sei urte iraun zuen maratoia

BOSTON, 1966KO APIRILAREN 19A. Bobbi Gibb, 23 urteko neska gaztea, maratoiaren abiapuntu inguruko zuhaixka batzuen atzean ezkutatu zen, anaiaren shortak eta txanodun jertse bat jantzita. Munduko maratoirik ezagunena abiatu zenean, Bobbi zain egon zen, gutxi gorabehera korrikalarien erdiak paretik pasa arte, eta orduan lasterka hasi zen. Otsailean antolatzaileei gutun bat bidali zien lasterketan izena emateko, baina lasterketako zuzendari Will Cloneyek erantzun zion emakumezkoak ez zirela gai maratoia egiteko. Gibbek bi urte zera-matzen entrenatzen eta 60 kilometroko saioa egina zuen; nahikoa eta gehiago, maratoia lasai egiteko.

Alboan zituen korrikalariak berehala konturatu ziren emakumea zela, eta haien babesa lagun, jertsea kendu zuen. Hiru ordu, 22 minutu eta 40 segundoan iritsi zen helmugara, ikusle eta korrikalari gehienek txalo artean. Gaur egun, Boston Athletic Association erakundeak onartzen du Gibb izan zela maratoia egin zuen lehen emakumea, baina orduan haren balentria keinu sinboliko hutsean geratu zen.

Hurrengo urtean, oraindik ere emakumeei maratoia egitea debekatu arren, Gibb berriro ateratzen lasterketan, aurreko urtekoaren pareko marka lortuz. Baina orduan ez zen emakume bakarra izan; Gibb iritsi eta ordubete ingurura, Kathrine Switzerrek helmugako marra zeharkatu zuen 261. zenbakia soinean zeramala. K. V. Switzer inzialak erabiliz eman zuen izena, eta antolatzaileek ez zuten jakin emakumea zela lasterketa abiatu arte. Maratoiaren bosgarren kilometroa bete baino lehen, Jock Semple lasterketako epailea parean jarri zitzaion, maratoia uzteko esanez, eta Switzer hura saihesten saiatu zenean gerritik heldu zion. Tom Miller mutil-laguna alboan zuen eta epailea bultzaka kendu zuen paretik. Hainbat korrikalari babestuta egin zuen emakumeak gainerako bidea.



Goian, Bobbi Gibb 1966ko Bostongo maratoia bukatu ondoren, soinean zenbakirik ez duela. Azpian, Kathrine Switzer 261. dortsalarekin, Jock Semple epailea atzean duela, eta Tom Miller –Switzerren mutil-laguna– alboan, epaileari bultzaka.

Dorsal ofizialak ez zion ezertarako balio izan; deskalifikatu egin zuten. Baina bosgarren kilometroko gertakizunaren argazkia mundu osora zabaldu zen. Aurreko urtean bizpahiru egunkarik Gibben berri eman zuten bitxikerien atalean, baina ez zuen inolaz ere lortu Switzerren argazkiak izan zuten oihartzuna. Horrek indar handia eman zion emakumeen parte hartzearen aldeko borrokari. Eta, hala ere, beste bost urte beharko zituzten helburua lortzeko. 1972ko Bostongo maratoian emakumei parte hartzeko eskubidea onartu zitzaion lehenengoz, eta beste hamabi urte beharko ziren emakumezkoen maratoia Joko Olinpikoen proben zerrendari eransteko.

Lehen emakume maratoilari haiek sei urte behar izan zituzten maratoia burutzeko, edo, Bostongo lasterketa 1897an sortu zela aintzat hartuz gero, 75 urte. ■




Arrastoak

Marco Polo Txinara iritsi al zen benetan?

HISTORIALARI GEHIENEK Marco Polo Txinara iritsi zela uste duten arren, zenbaitek zalantzan jarri dute berriki. Adibidez, Frances Woodek dio Pertsiaz harago ez zela joan. Horretarako erabiltzen duen argudioa da veneziarrak ez zituela bere kontakizunean Txinako zenbait elementu deigarri aipatu. Hain zuzen, Txinako Harresi Handia eta txinatar idazkera berezia.

Gainera, garaiko txinatar dokumentuetan ez da Marco Poloren izenik aipatzen, hark Txinan Kublai Khan handiaren mandatari gisa jardun zuela adierazi zuen arren.

Aldiz, esploratzaile veneziarra Txinara iritsi zela uste dutenek diote zenbait dokumentutan “Po-Lo” izena ageri dela, eta izen hori merkataritza italiarri dagokiola. Gainera, Marco Polok *Cipango* esan zion Japoniari, eta izen horrek txinatarrek erabiltzen zutena du oinarri. ■



Marco Polo (1254-1324).